

1120

EBAZPENA, 2008ko urtarrilaren 29koa, Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordearena, Ozaetako (Araba) Urrutia edo Iduia Jauregia monumentu izendapenez, Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Orokorrean sartzeko espedienteari hasiera eman jendaurrean jarri eta interesdunei entzuteko dena.

Euskal Autonomia Erkidegoak, Konstituzioaren 148.1.16 eta Estatutuaren 10.19 artikuluen babesean, eskumen osoa bereganatu zuen Kultura Ondarearen gaiari dagokionez. Aipaturiko eskumen horretaz baliatuz, Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legea onartu zen, kultura-interesa duten Euskal Autonomia Erkidegoko ondasunak deklaratzeko prozedurak arautzen dituena.

Ozaetako (Araba) Urrutia edo Iduia Jauregiak daukan kultura-interesa aztertutik, eta Kultura Ondarearen Zentroko Zerbitzu Teknikoek aurkeztutiko ebazpen proposamenari jarraituz, honako hau

EBATZI DUT:

Lebenengoa.— Ozaetako (Araba) Urrutia edo Iduia Jauregia, monumentu izendapenez, Euskal Kultura Ondarearen Zerrendan sartzeko espedienteari hasiera ematea, I. eranskinetako mugaketarekin eta II. eranskinetako deskripzioarekin bat etorritz.

Bigarrena.— Ozaetako (Araba) Urrutia edo Iduia Jauregia Euskal Kultura Ondarearen Zerrendan sartzeko espedientea jendaurrean jartzea, Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik hasi eta 20 eguneko epean alegazioak egin eta egokitzen jotzen diren agiriak aurkeztu ahal izateko, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 84. eta 86. artikuluetan oinarrituz. Aipaturiko espedientea Euskal Kultura Ondarearen Zentroan dago ikusgai (Donostia kalea 1, Vitoria-Gasteiz).

Hirugarrena.— Ebazpen hau interesdunei, Barrundiako Udalari, Arabako Foru Aldundiko Kultura, Gazteria eta Kirol eta Hirigintza eta Ingurumen Sailei eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailari jakinaraztea, jakinarazpena egin eta 15 eguneko epean alegatu eta egokitzen jotzen dituzten agiriak eta frogagiriak aurkeztu ahal izateko.

1120

RESOLUCIÓN de 29 de enero de 2008, del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes, por la que se incoa y se abre un periodo de información pública y audiencia a los interesados en el expediente de inclusión en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco, con la categoría de Monumento, del Palacio de Urrutia o Iduia, sito en Ozaeta (Álava).

La Comunidad Autónoma del País Vasco, al amparo del artículo 148.1.16 de la Constitución y a tenor del artículo 10.19 del Estatuto de Autonomía, asumió la competencia exclusiva en materia de Patrimonio Cultural, en cuyo ejercicio se aprueba la Ley 7/1990, de 3 de julio, del Patrimonio Cultural Vasco que rige los procedimientos de declaración de bienes de interés cultural de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Visto el interés cultural que presenta el Palacio de Urrutia o Iduia, sito en Ozaeta, atendiendo a la propuesta de resolución presentada por los Servicios Técnicos del Centro de Patrimonio Cultural,

RESUELVO:

Primero.— Incoar el expediente de inclusión en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco, con la categoría de Monumento, del Palacio de Urrutia o Iduia, de Ozaeta (Álava), conforme a la delimitación que figura en el anexo I y la descripción obrante en el anexo II.

Segundo.— Abrir un período de información pública del expediente de inclusión en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco, con la categoría de Monumento, del Palacio de Urrutia o Iduia, de Ozaeta (Álava), para que, durante el plazo de 20 días, contados a partir del día siguiente a la publicación de esta Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco, se puedan efectuar las alegaciones y presentar la documentación que se estime oportuna, como previenen los artículos 84 y 86 de la Ley 30/1992, del Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, encontrándose el expediente de manifiesto en el Centro de Patrimonio Cultural Vasco, sito en la calle Donostia-San Sebastián n.º 1, de Vitoria-Gasteiz.

Tercero.— Notificar la Resolución a los interesados, al Ayuntamiento de Barrundia y a los Departamentos de Cultura, Juventud y Deportes y Urbanismo y Medio Ambiente de la Diputación Foral de Álava, así como al Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio del Gobierno Vasco, a fin de que en el plazo de quince días desde la notificación puedan alegar y presentar los documentos y justificaciones que consideren pertinentes.

Laugarrena.— Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Arabako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, jende guztiak Ebazpen horren berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko urtarrilaren 29a.
Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordea,
GURUTZ LARRAÑAGA ZUBIZARRETA.

I. ERANSKINA

MUGAKETAREN EREMUA

a) Mugaketa-eremua.

Bi eremu mugatzen dira; alde batetik baserria bera, eta, bestetik, baserri-ingurua.

Horrenbestez, hauek dira mugaketa-eremuaren mugak: hegoaldean, fatxada nagusiaren aurrean, fatxada nagusiarekiko lerro paralelo bat, 35 metrokoa; iparraldean eta ekialdean, fatxadetikiko lerro paraleloak, 10 metroak; eta mendebaldean, iturriaren kalea.

b) Mugaketaren arrazoiak.

Proposatutako mugaketaren arrazoiak hauek dira: jauregiaren inguruko ingurumen-, estetika-, eta ikusmen-balioak babestea eta beren balioa agerian jartzeko eremuak ahalbidetzea. Mugaketa zehazteko, fatxaden adierazgarritasuna eta inguruko eremuen ezaugarriak hartu dira kontuan. Ondasuna behar bezala babesteko eta haren balioa agerian jartzeko, jauregiaren inguruko eremuak ere babestu behar dira, funtsezkoak eta ezinbestekoak baitira jauregiaren izaeran.

Hori dela-eta, jauregiaren eraikina ez ezik, jauregiaren inguruko eremua ere mugatzen da.

Cuarto.— Publicar la Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco y en el Boletín Oficial de Álava para su general conocimiento.

En Vitoria-Gasteiz, a 29 de enero de 2008.
El Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes,
GURUTZ LARRAÑAGA ZUBIZARRETA.

ANEXO I

DELIMITACIÓN

a) Ámbito de la delimitación.


La delimitación incluye por un lado el propio edificio en sí y por otro el entorno que lo rodea.

Así, el área de la delimitación queda definida por los siguientes límites: al sur y frontal a la fachada principal por una línea paralela a la fachada principal en 35 metros, al norte y este por unas líneas paralelas a la fachada en 10 metros y al oeste por la calle de la fuente.

b) Justificación de la delimitación.

La delimitación propuesta viene justificada por la necesidad de preservar los valores ambientales, estéticos y visuales del entorno del palacio y posibilitar espacios para su puesta en valor. La delimitación se establece conforme a la representatividad de las fachadas y las diferentes circunstancias de los espacios cercanos. La delimitación del entorno que resulta necesario para la debida protección y puesta en valor del bien, implica la protección de los espacios adyacentes al palacio sin los cuales no se entiende su carácter.

Por ello, esta delimitación incluye no solo la edificación del palacio propiamente dicha, sino también el entorno que la rodea.



II. ERANSKINA

DESKRIBAPENA

Jauregi barroko soila da, apaindura gutxikoa. Eraikinak oinplano karratua du eta lau isuriko estalkia, malda handikoa. Estalkia zeramikazko teila arabiarrekoa da. Beheko solairua, lehen solairua eta teilatupeko solairua ditu. Eraikina harlangaitzez egina dago, eta harlandua du izkinetan eta baoen inguruan. Jauregiaren eskantzuetan, lehen solairuaren eta teilatuparen artean, harrizko mentsula apaingarri batzuk daude, fatxaden elkarguneetan. Mentsula horiek goialdea etzana dute. Fatxada bakar batean ere ez da inposta horizontalik erabili solairuen arteko bereizketa nabarmentzeko.

Fatxada nagusia hegoaldera begira dago, eta laua, simetrikoa eta ardatz zentralekoa da. Ondo antolaturiko konposizioa du: hiru bao-ardatz bertikal ditu, eta solairuak ongi hierarkizatuta. Lehen solairuan, atetzar bat dago ezkaratzera sartzeko. Dintelduna da, eta ingurua hareharriaz nabarmenduta du. Sarbidearen bi aldeetara leihotxo altu batzuk daude, ezkaratzaren argizulo gisa. Alboetan, gainerako bi bao-ardatzak osatuz, leiho bertikal bana dago. Leiho horiek dinteldunak dira, harlandu handiz inguratuak, orejetarik eta moldurarik gabe. Leihoek burdineria dute, fatxadaren planotik zertxobait aterata. Ezkerreko aldeko burdineriak apaindurak ditu goiko aldean; frontoi kurbo gurutzadun bat, hain zuzen. Eskuineko aldekoak, berriz, galduta du hori. Solairu horretan bertan, duela gutxi eginiko leiho bat dago. Lehen solairua solairu nagusia da, eta hor, beheko solairuko ardatzekin lerrotatuta, hiru hutsarte handi daude, harlanduz inguratuak. Erdiko baoak, sarbideko atetzarraren gainean, sekzio angeluzuzeneko moldura du aurrealdean eta fatxadako balkoi bakarretan irtetzen da. Alboko baoak, berriz, leiho lauak dira, apaindurarik gabeak. Balkoia hareharrizkoa da, hiru mentsula edo harburu zertxobait kiribildutan bermatzen da, eta burdina forjatuzko karela du. Balkoiaren eta alboko leihoen artean, beheko argizuloen ardatz berean, armari bana dago, baoak baino altuagoak eta handiagoak. Bi armariiek larru erlaitzdunak eta hauts-babes molduratuak dituzte eta horman txertaturiko deskarga-arkutxuen azpian daude. Ezkerreko armariak irudi hauek ditu: zuhaitz frutadun bat, gaztelu bat atean txakur bat kateatuta duela-, bi otso ibiltari, hiru zerrenda eta lehoi zutitu bat. Eskuineko armariak, berriz, hauek ditu: gaztelu bat atean txakur bat kateatuta duela-, bi otso ibiltari, hiru zerrenda eta lehoi zutitu bat. Teilatupeko solairua altuera txikikoa da eta hiru bao karratu ditu, harlanduz eginak, ardatz bertikalei jarraiki. Estalkiaren isurialdeak ez du elementu irtenik. Aurrealdeko eremu librean fatxada nabarmendu egiten du. Bertan, putzu biribil bat dago, bai eta finka ixteko zenbait elementu ere.

Ekialdeko fatxada laua da eta 4 bao-ardatz bertikal ditu. Baoak dinteldunak dira eta apaindurarik gabeko harlandua dute inguruan, hareharrizkoa. Erdiko baoen

ANEXO II

DESCRIPCIÓN

Se trata de un palacio barroco sobrio y con escasos ornamentos. El edificio tiene planta cuadrada y cubierta a cuatro aguas de fuerte pendiente de teja cerámica curva. Presenta planta baja, primera y bajocubierta. El edificio se apareja con mampostería, empleando sillares en sus esquinas y cercos de vanos. En los esquinales del palacio, entre el primer piso y la bajocubierta y uniendo las fachadas, se ubican unas mensulas pétreas decorativas con la parte superior inclinada. No se marcan las líneas de forjados de los distintos pisos con impostas horizontales en ninguna fachada.

La fachada principal se alza en orientación sur y es plana, simétrica y de eje central. Presenta una ordenada composición con tres ejes verticales de vanos y una jerarquización de pisos. La planta baja se caracteriza por un portalón central de acceso al zaguán mediante dintel y recerco levemente resaltado de piedra arenisca. A ambos lados del acceso se ubican pequeñas ventanas altas a modo de luceros del zaguán. En los laterales y formando los otros dos ejes de vanos se abren sendas ventanas verticales adinteladas, con grandes sillares, sin orejetas ni molduras y con herrería que sobresale del plano de fachada. La herrería izquierda está decorada en su parte superior a modo de frontón curvo con cruz, mientras que la de la derecha lo ha perdido. En esta misma planta se ubica una ventana de factura reciente. El primer piso es la planta noble y en él se disponen, a eje con los vanos del piso inferior, tres huecos adintelados con grandes sillares. El vano central, sobre el portón de acceso, presenta frente con moldura de sección rectangular y da acceso al único balcón, mientras los dos vanos laterales son ventanas planas sin decoración. El balcón de piedra arenisca se sustenta en tres mensulas o canes pétreos levemente avolutados y presenta antepecho de hierro forjado. Entre el balcón y las ventanas laterales, a eje con los luceros inferiores, y con mayor altura y dimensión que los vanos se sitúan sendos escudos de armas. Los dos escudos tienen cueros con repisilla y guardapolvos moldurados y se ubican bajo arquillos de descarga embutidos en el muro. El escudo izquierdo presenta árbol con frutos, castillo con perro encadenado en la puerta, dos lobos pasantes y tres bandas con león rampante. El escudo de la derecha presenta castillo con perro encadenado en la puerta, dos lobos pasantes, tres bandas y león rampante. La bajocubierta de pequeña altura tiene tres vanos cuadrados realizados en sillería en continuidad con los ejes verticales. El faldón de cubierta no presenta ningún elemento saliente. El espacio libre frontal realza la fachada y presenta un pozo circular y diferentes elementos de cierre de la finca.

La fachada lateral este es una fachada plana que se caracteriza por una composición regular de 4 ejes verticales de vanos. Los vanos se realizan adintelados y se

arteko tartea txikiagoa da. Beheko solairuan, hiru leiho daude; burdineriazko itxitura dute, fatxada nagusiko burdineriaren antzera apainduta. Erdiko leihoko burdineria-itxitura altuera txikiagokoa da eta sarrera bate bat du ondoan, bigarren ardatzean (ezkerretik hasita). Lehen solairuan, lau baoak antzekoak dira: leiho bertikal lau eta kareldunak dira. Karela bi harlandu handiz osatuta dago. Ez dago armarririk, ezta balkoirik ere, eta nolabaiteko erregularitasuna hautematen da. Teilatupeko solairuan, lau bao txiki daude; hiru karra tuak dira eta bestea, berriz, bertikala.

Mendebaldeko fatxadak gorputz bat du erantsia, eta horrek eragin handia du fatxadaren egiturari. Eranskin horretan, jatorrizko eraikinean erabilitako harlangaitzari eutsi zaio eta zurez estaliriko beste gorputz bat erantsi, lehen solairua osatzeko. Eginkizunari dagokionez, jauregiarekin lotura du eta aurretik zegoen beste eraikin bat ordeztzen du. Fatxada horretan, kanpotik, teilatupeko solairuko horma itsutua (harlangaitzezkoa), erdiko bao txikia, harlanduzko eskantzuak eta angeluetako mentsulak daude. Halaber, harrizko hiru mentsula daude, golazko moldurak dituztenak, eta jauregirako sarbide zahar bat.

Atzeko fatxada iparraldera begira dago. Horma horrek oso bao gutxi ditu, ia erabat itsututa dago-eta. Lehen solairuan, hiru bao txiki daude. Horietatik bi etzanak dira, harlanduz inguratuta daude eta zehartasun handia dute barrualdean. Laugarren baoa gerora eraikia da. Teilatupeko solairuan ez dago baorik, eta lehen solairuan, berriz, antolaketarik gabeko zenbait bao daude, harlanduz inguratuak: hiru bao karratu, tamaina txikiak, altuera ezberdinetan; ezkerreko muturrean, balkoi bat hormaren arrasean; erdian, leiho bertikal bat. Halaber, harlanduz inguratu gabeko bao bat ere badago, aurretik aipaturiko bao karratuen artean.

Barne-banaketa erdiko nukleo baten inguruan antolatzen da. Nukleo horretan, eskailera dago. Lehen solairuan, ezkaratzetik ezkeralderantz aurrera eginda, eskailera nagusiaren nukleora iristen da. Eskailera bi atalekoa da. Lehen ataleko mailak eta eskailera-burua harrizkoak dira. Bigarren atalean berriz, mailak zurezkoak dira eta balaustrada bat dago, tornuan landua. Lehen solairuan bizitegi-eremua zegoen, bai eta fatxada nagusiarekiko korridore paralelo bat ere –eskailera pasillo horretan amaitzen da–. Korridore horretatik, areto nagusietara heltzen da. Aretoak hegoaldeko fatxadarantz lerrotuta daude. Atzeko aldean, berriz, zenbait zerbiztu-gela daude. Eraikuntzaren egitura karga-horma perimetralek eta barneko hiru barne-hormak (fatxada nagusiarekiko paralelo daude) osatzen dute. Hiru horma horiek teilatupeko solairuaren zati bat ere hartzen dute.

Fatxada nagusiarekiko paralelo dauden lehen eta bigarren hormarteak zurezko forjatuz estalita daude. Forjatuko habexkak fatxadarekiko zut daude. Hirugarren hormartean, berriz, habexken norabidea aldatzen da eta

emplea en su cerco sillares de arenisca sin ornamento, disponiéndose los del tramo central más próximos. En la planta baja se presentan tres ventanas con cierre de herrería con decoración similar a la herrería de la fachada principal. El cierre de herrería de la ventana del tramo central es de menor altura y junto a ella se sitúa una puerta de acceso ubicada en el segundo eje contado desde la izquierda. En la planta primera los cuatro vanos son de factura similar, ventanas verticales, planos y con dos grandes sillares formando el antepecho. No hay escudos, ni balcones y se aprecia una cierta regularidad. En la bajocubierta se presentan cuatro vanos de pequeño tamaño, tres cuadrados y uno vertical.

La fachada lateral oeste está condicionada por un cuerpo anexo. El anexo es una construcción que conserva una preexistencia de mampostería en planta baja y cuenta con un nuevo cuerpo revestido de madera que forma el piso primero. Funcionalmente se relaciona con el palacio y sustituye a una edificación anterior. En esta fachada se aprecia desde el exterior el muro ciego de mampostería de la bajocubierta con un pequeño vano central, los esquinales de sillería y las mensulas de los ángulos. También se puede observar tres mensulas pétreas con moldura de gola y un antiguo acceso al palacio.

La fachada trasera, en orientación norte, es un muro con apenas vanos que se caracteriza por su carácter ciego. En planta baja se ubican tres pequeños vanos, dos apaisados, con sillería y con gran derrame interior y un cuarto de factura posterior. En la bajocubierta no hay ninguno y en el primer piso se presentan vanos desordenados de factura diversa recercados por sillares, tres cuadrados de pequeño tamaño a distinta altura, uno a modo de balcón enrasado en el extremo izquierdo, una ventana vertical en el centro y otro sin recerco entre los vanos cuadrados antes citados.

La distribución interior se desarrolla entorno a un núcleo central donde se ubica la escalera. En planta baja, desde el zaguán, frontalmente hacia la izquierda se accede al núcleo de escalera principal. La escalera es de dos tramos, los peldaños del primer tramo y el descansillo son de piedra, mientras en el segundo tramo son de madera y presenta balaustrada torneada. En el primer piso se albergaba la zona residencial y un pasillo paralelo a la fachada principal en el que desemboca la escalera sirve a las salas nobles enfiladas ubicadas hacia la fachada sur, mientras hacia la parte trasera se sitúan diferentes servicios. La construcción esquemáticamente está ejecutada a base de muros de carga perimetrales y tres muros internos paralelos a la fachada principal. Estos tres muros se prolongan parcialmente hasta la bajocubierta.

La primera y segunda crujía paralela a la fachada principal está cubierta por forjados de madera con viguetas perpendiculares a la fachada, mientras en la tercera crujía se cambia la dirección de las viguetas y se

habeak erabiltzen dira egituran. Estalkiak zurezko egitura du, eta honako hauek osatzen dute: txarrantxa-habe horizontalek, besoek, aho-mihiztadurek eta eskuaira-listoiek. Hormen izkinetan eta barneko hutsartein inguruan zein dinteletan, harlandua dago.

NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURA SAILA

1121

EBAZPENA, 2008ko otsailaren 5ekoa, Nekazaritzaren eta Arrantzaren Garapeneko sailburuordearena, azaroaren 30eko 243/2004 Dekretuaren babesean 2007. urterako emandako dirulaguntzetarako aurrekontu-kreditua noiz agortu den jendaurrean jartzekoa. Dekretu horrek Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritzako ustiatagietarako, landa-eremuen garapen eta egokitzapenerako, eta basogintzarako laguntzak arautu ditu.

Nekazari gazteek ustiategiak jartzeko Estatuaren laguntza osagarriari dagokion azaroaren 30eko 243/2004 Dekretuaren 49.6. artikuluan xedatutakoaren arabera, ekitaldi ekonomiko batean lerro horri dagozkion dirulaguntzak emateko ezarritako kreditua agortuz gero, egoera horren berri eman behar da administrazio-ebazpen baten bidez, eta, ebazpen horretan kreditua noiz agortu den adierazi behar da. Ebazpen hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

Hala ere, azaroaren 30eko 243/2004 Dekretuaren 49.6. artikuluekin bat etorriz, aurrekontuko ekitaldian aurkeztutako laguntza-eskabidean diruz lagun daitkeen jardunetarako ezin bada laguntza eman ekitaldi horri dagokion aurrekontu-kredituez baliatuta, orduan, hurrengo ekitaldiko aurrekontu-kredituak erabili ahal izango dira, berriro eskabidea aurkeztu behar izan gabe, betiere, jardun horiek egoki betetzen badiutze laguntza lortze aldera dekretuan ezartzen diren betekizunak. Halakoetan, ebazpen-prozesuan dagoen denbora-lehentasuna errespetatze aldera, eskabidean adierazitako eguna hartuko da kontuan.

Horiek horrela, nekazari gazteek ustiategiak jartzeko Estatuaren laguntza osagarria emateko 2007ko aurrekontu-ekitaldiko funtsak ekitaldia amaitu baino lehen agortu direnez, egoera horren berri emateko, honakoa

emplean vigas en su estructura. La cubierta presenta una estructura de madera con vigas riostras horizontales, jабalcones, ensambles con cajeados y cuadrales con enanos en los ángulos. Las esquinas de muros y recercos y dinteles de huecos interiores se realizan asimismo con sillares de piedra.

DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA, PESCA Y ALIMENTACIÓN

1121

RESOLUCIÓN de 5 de febrero de 2008, del Viceconsejero de Desarrollo Agrario y Pesquero, por la que se hace pública la fecha en que se ha agotado el crédito presupuestario correspondiente al ejercicio 2007 para las ayudas previstas en el Decreto 243/2004, de 30 de noviembre, sobre ayudas a las explotaciones agrarias, al desarrollo y adaptación de las zonas rurales y a la silvicultura de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 49.6 del Decreto 243/2004, de 30 de noviembre, referente a la ayuda estatal complementaria para la instalación de jóvenes agricultores, si en un ejercicio económico se agota el crédito consignado para la concesión de las ayudas contempladas en esta línea, al objeto de dar publicidad de esta circunstancia, se emitirá resolución administrativa en la que se señalará la fecha en la que se ha producido el agotamiento del citado crédito, publicándose la misma en el Boletín Oficial del País Vasco.

No obstante lo anterior, y de conformidad con el artículo 49.6 del Decreto 243/2004, de 30 de noviembre, se podrán imputar a los créditos presupuestarios del ejercicio posterior las solicitudes de ayudas relativas a actuaciones subvencionables que no pudieron ser atendidas con los créditos presupuestarios del ejercicio, sin necesidad de volver a presentar la solicitud, siempre que las citadas actuaciones cumplan con los requisitos establecidos en el Decreto para la obtención de las ayudas. En tal caso, a los efectos de conservar la prelación temporal en el proceso resolutorio, se conservará la fecha de la solicitud.

Al objeto de dar publicidad a esta circunstancia, habiéndose agotado, para el ejercicio presupuestario 2007, los fondos destinados para la concesión de la ayuda estatal complementaria para la instalación de jóvenes agricultores antes de su finalización,